

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SOPELAKO UDALAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Sopelako Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi Erakunde Autonomoari buruzko hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Langileen atalean azpimarratu da 2011n zehar Erakunde Autonomoak ez dituela 8/2010 LEDn aurreikusitako neurriak ezarri, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzeari buruzkoa, eta gainera, langileei ordaindu zaizkien ordainsari oinarrizko eta osagarriak ez zaizkiola ezargarria den arautegiari egokitzen. Berebat, aldi baterako lan kontratazioak gauzatzeko burutu diren hautaketa prozesuetatik batean ere ez dira berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak ez dituela hainbat kasutan bete administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak eta adierazgarriena 2007an esleitutako kontratu baten hiru aldaketa onartzea izan dela, kontratuaren xedea zabaldu eta hirurek batean esleitutako zenbatekoaren gainean % 95eko igoera eraginez; horrek oinarrizko edukia eragiten du eta kontratazio araudiaren lehia printzipioak urratzen, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere itxuraldatzen baitu.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 0,5 mila euroan gehitu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2011ko ekitaldian aurrezki garbi positiboa eskuratu duela ondorioztatzen da; horrek Diruzaintza Geldikinarekin batera aurreko ekitaldietakoa baino inbertsio programa txikiagoa finantzatzeko bide eman dio eta horiek finantzatzeko kanpoko zorpetzea baliatu behar izan du.